

4.2. Gaiaren lanketa

> Ipuin berri bat sortzen



- Nola idazten da ipuin bat?

• Ipuinen egitura

Helburuak

- Ipuinen egitura ezagutzea.
- Ipuinen egiturako zatiak ezberdintzea.
- Ipuin bat idatzi ahal izateko hainbat ideia eta kontzeptu bereganatzea.
- Hainbat hitz berri ikastea.

Prozedura

- **Lehenik eta behin**, ume bakoitzari "ipuin egitura" fitxa banatu.
- Joxek bere gutunean esan zien bezala, ipuinak egoki idazten ikasiko dutela esan.
- Ume bakoitzak, isiltasunean, fitxako testua irakurri.
- Denen artean fitxa komentatu. Helburua ipuinen egitura ulertzea da: ipuin batek sarrera, korapiloa eta bukaera dauzka.
- **Jarraian**, umeak binaka jarri tea bikote bakoitzari ipun bat banatu: "Barbantxo", "Bremengo musikariak", "Igel erraldoia", "Tximinoen laguna", "Nola sortu zen Joantxo, beldurrik gabeko hartza", "Tximinoa eta dortoka", "Neska bihurtu zen sagua" eta "Jauregiko sagua eta baratzeko sagua".
- Ipuina irakurri eta ulertzen ez dituzten hitzak azpimarratu ostean, hitzak hiztegian bilatu.
- Ipuinaren egitura-eskema egin: kolore ezberdinekin azpimarratu sarrera, korapiloa eta buakera.
- **Bukatzeko**, bikote bakoitzak beste umeei irakurri duten ipuina kontatu eta sarrera, korapiloa eta bukaera zeintzuk diren esan.